



GURASO BILERA

LH 5

2023- 2024 ikasturtea

GAI ZERRENDA

AURKIBIDEA

1. IRAKASLEAK ETA FAMILIEKIN HARREMANA
2. IRTEERA PROFILA ETA METODOLOGIA
3. JANGELA EREDUA
4. ARLOAK ETA IKAS-MATERIALA
5. LAN AZTURAK. GURASOEKIN ELKARLANEAN
6. ZENBAIT OHAR
7. OSASUN ARRETA
8. IRTEERAK, JARDUERA OSAGARRIAK ETA OSPAKIZUNAK
9. EUSKARAZ BIZI PROIEKTUA
10. ELKARBIZITZA
11. GURASOEN PARTAIDETZA IKASTOLAN
12. GELAKO GURASO ORDEZKARIAK
13. ERANSKINAK
 - a. Orduategia
 - b. Euskaraz Biziko dekalogo
 - c. Jangelako dekalogo
 - d. "Smartphona zergatik eta zertarako?" Dekalogo Teknoizen eskutik.

1. IRAKASLEAK ETA FAMILIEKIN HARREMANA

TUTOREAK:

5.A UXOA IRIGOIEN	uirigoien@zurriolaikastola.eus
5.B LEIRE ERGUIN	lerguin@zurriolaikastola.eus
5.C PERU AIARTZA	paiartza@zurriolaikastola.eus

BESTELAKOAK:

Gaztelania eta GH: UNAI ARREGI	uarregi@zurriolaikastola.eus
GH: PAULA GONZALEZ	pgonzalez@zurriolaikastola.eus
Musika: IGOR BILBAO	ibilbao@zurriolaikastola.eus
Orientatzailea eta PT-a:	
JONE REGLA	jregla@zurriolaikastola.eus
JON BADIOLA	jbadiola@zurriolaikastola.eus
LH-ko etapa burua: MIKEL SOROA	etapaburualh@zurriolaikastola.eus

Ikasgaia	Irakasleak		
	A	B	C
Tutoretza	Uxoa Irigoien	Leire Erguin	Peru Aiertza
Ingurunea	Uxoa Irigoien	Leire Erguin	Peru Aiertza
Euskara	Uxoa Irigoien	Leire Erguin	Peru Aiertza
Antzerkia	Peru Aiertza	Peru Aiertza	Peru Aiertza
Baloreak	Uxoa Irigoien	Leire Erguin	Peru Aiertza
Gaztelania	Unai Arregi	Peru Aiertza	Peru Aiertza
Matematika	Uxoa Irigoien	Leire Erguin	Peru Aiertza
Ingelera	Leire Erguin	Uxoa Irigoien	Leire Erguin
Gorputz Hezkuntza	Unai Arregi	Unai Arregi	Paula Gonzalez
Arte Hezkuntza	Uxoa Irigoien	Uxoa Irigoien	Uxoa Irigoien
Musika	Igor Bilbao	Igor Bilbao	Igor Bilbao

Ikasturtean zehar guraso bilera orokor bat egingo dugu. Horretan ikasturteko helburuak, metodologia eta eguneroko dinamikaz arituko gara.

Urtean idatzizko 3 ebaluazio-txosten helaraziko zaizkizue. Bakarkako 2 elkarrizketa egingo ditugu gurasoekin ebaluazio-txostenen gaineko azalpenak emateko eta ikaslearen garapenari buruzko informazioa trukatzeko. Biler horietaz gain, behar adina aldiz elkartuko gara zuekin, egoerak hala eskatuz gero.

Tutorearekin harremanetan jarri edo mezu bat helarazi nahi izanez gero, bere e-postara mezu bat bidali eta ahalik eta azkarren emango zaio erantzuna. Momentuan jaso beharrekoa mezua balitz, Ikastolako idazkaritzara deitu. Ikasleen bidez oharrak bidaliz gero, hauek idatziz egin beharko dira, aste-egitarauaren bitartez.

Hortaz gain, gogorarazten dizuegu urtean zehar Ikastolak gurasoekin izango duen komunikazio bide nagusia ostiraletan bidaltzen den **ATARIA** astekari digitala dela. Bertan, aurreko astean izandako ekintza nagusien berri emateaz gain, hurrengo egunetan izango diren gertakariak eta bestelako ohar garrantzitsuak agertzen dira. Hori dela eta, oso garrantzitsua da behar besteko arreta ematea asteroko komunikabide honi. Informazio hori guztiari Ikastolako webgunea gaineratu behar zaio.

Aipatu berri dugun Ataria Alexia plataforma bidez bidaltzen da, eta LH 4, 5 eta 6. mailatan ebaluazio txostenak ere plataforma honen bitartez helarazten zaizkizue. Tresna honekin inolako arazorik izanez gero, alexiazalantzak@zurriolaikastola.eus helbidera idatzi.

Bestalde, zuen datu pertsonaletan aldaketarik izanez gero, idatzi ezazue idazkaritzara: idazkaritza@zurriolaikastola.eus

2. IRTEERA PROFILA ETA METODOLOGIA

Ikasle batek Zurriola Ikastolan egin dezakeen ibilbidean maila eta etapa ezberdinak zeharkatuko ditu. Ibilbide guzti horretan bere garapen integrala lortzea da gure helburua. Horretarako **Zurriolako Ikaslearen Irteera Profila** definitu genuen Ikastolako guraso eta irakasleen artean. Ikastolako hautu pedagogikoa eta jarduna Zurriola Ikastolako Ikasle orok garatu beharreko ezaugarri horietara bideratuta dago.

Hauek dira Zurriolako Ikaslearen Irteera Profilaren ezaugarriak (ZIIP):

- EUSKALDUN EUSKALTZALEA
- KOMUNIKATZAILE ELEANITZA
- BIZIKIDETZAREN SUSTATZAILEA
- INGURUMENAREKIKO ERRESPECTUAREKIN KONPROMETITUA
- OSASUN OREKA BILATZEN DUENA
- JAKIN-MINA DUENA
- AUTONOMOA
- KOOPERATIBOA
- KRITIKOA
- EKINTZAILEA

- SORTZAILEA
- BALIABIDE TEKNOLOGIKO ETA DIGITALEN ERABILTZAILE ERAGINKOR ETA ARDURATSUA

Ikastolan haurrentzat proposatzen ditugun espazio, material, jarduera eta denboraren antolaketak haurren ongizatean eta garapenean eragin zuzena dute. Honek, gure antolaketa zein espazioen etengabeko azterketa egitera behartzen gaitu, haurren garapen osoan (psikomotorean, afektiboan, sozialean zein kognitiboan) eragina baitu.

Errefortzu saioak

Ikas-prozesuan ager daitezkeen zailtasunei aurre egiteko matematikan laguntza gehigarria eskaintzen dugu. Tutoreak edo arlokako irakasleak zuzenduta izaten dira saio hauek eta ikasle talde txiki bati zuzenduta egoten dira.

Errefortzuak orduz barne izango dira, eta hauetan bigarren irakasle bat sartuko da gelan. Ikasleren bat errefortzuan hartuko bada familiei adieraziko zaizue.

3. JANGELA EREDUA

Jangelako orduetan, bazkaltzeaz gain, beste balore eta helburu batzuk lantzen ere saiatzen gara. Bazkaltzea ez da helburu bakarra. Eremu honetan hainbat alor lantzeko aukera dago: ardura, autonomia, motrizitatea, garapen emozionala, ingurunearekiko sentiberatasuna, mahaian eduki beharreko ohitura egokiak... Ikasleei protagonismoa ematea bilatzen du, jangelako tarte horretan beraien parte-hartzea areagotuz.

Ategorrietako ezaugarriek eta antolaketak ikasleek bazkaltzeko duten denbora luzatzea baimentzen du, eta adinaren arabera ikasleek mahaia jarri, mahaia jaso, aulkiak bildu, ingurua txukundu... egingo dute. Aurrera begira asmoak urrutirago garamatzate, baina, oraingoan, ardura txikiak hartzen hasiko gara. Ikasleak mahai borobiletan eseriko dira, eta beraietako bat arduraduna izango da. Ikasleekin geletan landuko den dekalogoia eranskinean duzue.

4. ARLOAK ETA IKAS-MATERIALA

EKI PROIEKTUA

Ikasturte honetan matematika, ingurunea, gaztelania eta ingelesa arloetan EKI proiektuarekin jarraituko dugu. Eki proiektua EHko ikastolen hezkuntza proiektu propioa da. Euskal Curriculumara barneratzen du, honakoak sustatuz:

- Pertsonaren garapen osoa landu.
- Euskal kulturaren oinarriak eskuratzea.

Konpetentzien lanketan oinarritzen da:

- Edukiak ikasi eta metatzea ez da azken helburua.
- Edukiak baliabidetzat hartzen dira.

Integrazioaren pedagogia da aukera metodologikoa:

- Ikasleari benetako egoera esanguratsuak planteatuko zaizkio, irtenbidea aurki dezan.
- Helburua da ikaslea unitate bakoitzaren amaieran zeregin batzuetan kompetentea izatea.
- Horretarako proposatutako egoera bati irtenbidea eman beharko dio, ikasitako edukiak erabiliz.


Unitate didaktikoaren garapena

Hiru unitate ditu ikasturteko. Unitate bakoitza hiru fasetan banatzen da:

1. Diziplinarteko hasiera fasea
2. Arlokako sekuentzia fasea:
 - Ingurunea
 - Matematika
 - Gaztelania
 - Ingelesa
3. Diziplina arteko amaiera fasea

Arlokako sekuentzia fasea, era berean, beste hiru fasetan banatzen da.

1. Hasierako fasea: Zer, nola eta zertarako? Egoeraren aurkezpena egiten da.
2. Garapen-fasea: Edukiak eskuratzen dira eta hasierako egoerari aurre egiten zaio.
3. Amaierako fasea: Egoera berriei aurre egiten zaie.



Jarduera motak

- Ahozko jarduerak
- Idatzizkoak: arloko liburuak + jarduera fitxak
- IKT jarduerak:
 - www.ekigunea.eus: Bertan IKT- jarduera fitxak, audioak, bideoak ... aurki ditzakezue.
 - *Google kontua*: Bertan posta, Drive-a, txat-a, egutegia... dituzte.
 - Arazoak ekiditeko eta erabiltzen laguntzeko, beharrezkoa da gurasoen jarraipena.
 - CLASSROOM:
 - Eskatutako ariketak irakasleekin partekatuko dituzte, modu honetan, irakasleak bertan egin ditzake zuzenketak.
 - DRIVE-aren bidez:
 - Ikasle bakoitzak karpeta bat izango du ikasturte osorako. Bertan, eskatutako lanak gordeko ditu.
 - Ikasle eta irakasleek informazioa partekatu dezakete.

Materiala

- 5 aniladun karpeta: bertan unitate bakoitzeko jarduera fitxak egongo dira (ingeleza, ingurunea, matematika, lengua eta euskara).
- Funden karpeta: bertan musikako jarduerak egongo dira.
- Marradun koaderno handia: idazlanak egingo dituzte bertan.
- Unitateko liburua.
- Gelan ordenagailu kaxa daukagu eta ikasle bakoitzak zerrendako zenbakiaren arabera, berea erabiliko du.

Ebaluazioa

Unitate bakoitzean arlo ezberdinek bere helburu didaktikoak dituzte. Ondoren, unitatearen bukaeran, landutakoa zerbait gauzatzeko erabiliko dugu, eta arloko kompetentzia izango da hori. Azkenik, arlo ezberdinetan landutakoa integratzeko diziplinarteko kompetentzia orokorra izango dugu.

Adibidez:

Arlokako fasean

- Arlokako garapen faseko jarduera batzuk erabiliko ditugu ebaluatzeko.
- Arlokako amaiera faseko jarduerak ere oso garrantzitsuak izango dira ebaluaziorako, arloan landutakoa aplikatuko dutelako.
- Programatutako kontrolak

Auto erregulazio jardueren garrantzia


- Jarduera horien bitartez ikasleak bere burua ebaluatu behar du.
- Garapen eta Amaierako faseen azken aldera planteatzen dira auto erregulazio jarduerak.

Diziplinarteko amaiera fasean

- Egoera erreal batean arlo ezberdinetan landutako edukiak nola aplikatu dituen ebaluatuko dugu.

Laburbilduz: zer eskaintzen digu EKI proiektuak?

- Kompetentziak lantzen ditu.
- Proiektuak baliatzen ditu ikasitakoa erabiltzeko. Metodologia horrek ikasleen motibazioa areagotzen du.
- Autonomia bultzatzen du, ikaslea da protagonista.
- Bost ikasgaien arteko koordinazioa bermatzen du.
- IKT-ak proiektu eta jardueretan integratuta daude.



EUSKARA

EKIk proposatutako metodologian oinarrituz, baina gelako aniztasunari modu zabalagoan erantzuteko eta gure Ikastolako ikasleen errealitate linguistikoari hobeto erantzuteko, euskararako material propioa dugu. Material hau hiruhileko bakoitzean proiektu batean zentratuz gauzatuko dugu (prentsa, ipuingintza eta sukaldaritza) eta gai hauetan oinarrituz, hizkuntzaren helburuak eta kompetentziak lortzera bideratuta egongo da ikasle bakoitzaren garapenerako aproposa den eskaintza eginez.

IRAKURKETA ETA IDAZKETA SAIOA

- Irakurketa eta idazketa indartzeko saioa da.
- Ulermena eta idazketa lantzeko jarduera desberdinak erabiliko ditugu.
- Irakurketari garrantzia eman nahian, gelan tartetxo bat eskainiko diogu bakarkako irakurketari eta astero-astero Ikastolako liburutegira joango gara.

TUTORETZA SAIOAK

- Helburuak:
 - Auto-estimua eta auto-ezagutzatik abiatuta norbanakoaren garapena.

- Emozioen lanketa egitea.
- Egunerokotasunean sortzen diren gatazken kudeaketa.
- Bizikidetzaren arauak balioestea eta errespetatzea.

ARTE HEZKUNTZA: MUSIKA

Musika munduko edozein tokitan hitz egin eta ulertu daitezkeen hizkuntza unibertsala da. Horregatik, musikak dituen ezaugarriak eta bere garrantziaz ohartaraztea da maila honetako helburu nagusia. Horretarako mugimendua, ahotsa, erritmoa, eta instrumentazioaren hastapenak landuko dira nagusiki, horiek sortuz, erabiliz eta jasoz. Gainera, musika eta dantzak garrantzia handia izan du gure identitateari dagokionez; beraz, musika saioa euskal kulturaren eta euskal-ohituren transmisio-unea ere izango da. Musika saioetarako txirula ekarri beharko dute ikasleek.

GORPUTZ HEZKUNTZA

Norberaren gorputzaren gaitasun motorrak ezagutzea eta, besteak beste, jolasaren bidez horiek garatzea da gure helburu nagusia. Horretarako ekintza ezberdinak proposatuko ditugu: bakarkakoak, bat baten aurkakoak, elkarlanekoak, elkarlaneko-aurkakotasunekoak, ziurgabetasunekoak eta adierazpenekoak. Horiek guztietan arauen betetzeaz gain partehartzea ere sustatuko da.

Jarduera fisikoetan aktibo izatea bilatzen dugu eta norbere osasunean duen onura ezagutzea.

Ingurukoekiko errespetua eta taldekideekin duten lankidetzaren baloratuko dira.

Gorputz Hezkuntza burutzen den egunetan arropa egokia ekarri behar dute. Egunen batean saioa burutzeko ezintasunen bat edukiz gero, idatzizko oharra bidali beharko da. Kiroletarako arropa eroso ekartzea ezinbestekoa da.

BALOREAK

Adin honetan, haurrak transizio-garai bat izaten du, banakako pertsonak sentituzetik beste pertsona batzuekin dituen harremanak garrantzia gehiago hartzen duelarik. Ondorioz, bizikidetzaren esparruan, bere gertukoak diren testuinguruetan (familia, ikastola, auzoa) sortzen diren egoeren kudeaketarako herramientak eta estrategiak lantzen dira. Bestalde, besteekiko errespetuzko jokabideak sustatzen dira, berdintasunezko eta diskriminaziorik gabeko elkarbizitza helburu izanik.

- Helburuak:
 - Herritarron betebeharrak eta eskubideak ezagutzea.
 - Gizalegezko ohitura eta jarrerak sustatzea.
 - Gizartearen ulertzea bertan integratu ahal izateko.
- Proiektuak:
 - Giza eskubideen inguruko hainbat ekimenetan parte hartzea.

IKASKUNTZA KOOPERATIBOA

- Ikaskuntza Kooperatiboan oinarritzko talde txikitan lan egiten da ondorengo helburuak lortzeko:
 - Berdintasunezko parte-hartzea ahalik eta gehien ziurtatzea.
 - Aldibereko elkarreragina indartzea.
- Hau kontuan izanik ondorengo alderdiak nabarmendu daitezke:
 - Ikaskuntza Kooperatiboko taldeko kideek erantzukizun bikoitza dute: irakasleak irakatsitakoa ikastea eta taldekideekin kooperatzea.
 - Irakasleak bi helburu ditu: ikasleek eskolako edukiak ikastea, eta aldi berean, taldean lan egiten eta kooperatiboak izaten ikastea.
 - Ikaskuntza kooperatiboa ikasleek ikasi beharreko curriculum eduki bat gehiago izango da.

TAILERRAK. ELKARREKIN SORTUZ

- Astean bi orduz musika-plastika-antzerkia lantzeko tailerrak izango dituzte. Ikaslea tailer guztietatik pasako da ikasturtean zehar.
- Tailerra momentu konkretu batean gauzatzen da, gai zehatz baten inguruan, ikasleari testuinguru bat sortzen zaio eta eredu batzuk eskaintzen zaizkio, eta material/baliabide anitzetik abiatuz produktu bat sortzeko aukera eskaintzen zaio.
- Eskaintako ziurgabetasunezko esperientzien edo erronken aurrean espero da ikaslearengan ideiak, hipotesiak edota galderak sustatzea, hau da, hausnarketa bideratzea.
- Produktuaren sorrerarako teknika ezberdinak erabiltzen dira, baina, tailerren helburua ez da konpetentzia instrumentala (egiten jakin) soilik garatzea, tailerren helburua zehar konpetentziak garatzea da (kritikotasuna, sormena, erabakitze gaitasuna, kooperazioa...). Noski, aukeratutako gaiaren arabera disziplina baitako konpetentziak ere landuko dira bide batez.
- Hori dela eta, ez da ereduaren erreproduzioa bilatzen, produktuaren sorreran, ikertzea, berritzea, transformatzea, pertsonalizatzea, baizik. Prozesuak azken emaitzak bezain besteko garrantzia edo gehiago izango du.

5. LAN AZTURAK. GURASOekin ELKARLANEAN

Gurasoen laguntza ezinbestekoa dugu ikasleen hezkuntzan eta, ziklo honi dagokionez, lan-aztura egokiak eta jarrera baikorrak garatzen jarraitzea oinarritzkoa da. Horregatik, honako puntu hauetan arreta berezia jartzea eskatzen dizuegu:

- **Harremanen kalitatea** zaindu, haurrari entzun, denbora eskaini, esan eta egiten duena baloratu, etab.
- **Errespetuzko jarrerak** bultzatu.

- **Motibazioa eragin:**
 - Gelan lantzen diren gaiekiko interesa erakutsi.
 - Ikasturtean zehar izandako aurrerapenak baloratu eta goraiatu.
- **Etixerako lanen jarraipena** egin. Horretarako aste-egitarauaren jarraipena egitea garrantzitsua da. Ahal dela, etxerako lanak toki eta ordu berean egitea gomendatzen dugu.
- **Materialaren antolaketa** zaindu: Koadernoak, liburuak, motxila...
- **Irakurketa sustatu.** Motxilan liburu bat beti:
 - Euskara eta gaztelania txandakatu.
 - Etxean ere irakurketa sustatu.
- **Euskaraz bizi:**
 - Euskal komunikabideak kontsumitzera eta aisialdian **euskarazko** jarduerak egitera animatu.
- **Eskolaz kanpoko jarduerak** neurrian:
 - Banakako beharrak desberdinak dira.
 - Kopuruaz hausnartu eta baloratu.
 - Lehentasunak markatu.
- **Autonomia sustatu**, bai ikastolako jardueretan bai eguneroko bizitzan beraien ardurak hartzea:
 - Sortzen diren arazoei aurre egitea.
 - Zailtasunen aurrean jarrera baikorra eta aktiboa bultzatzea, beraiek bila ditzatela soluzioak betiere behar dutenean gure laguntza eskainiz .
 - Autonomiarantz eman beharreko prozesua progresiboa eta pertsonala dela gogoratu.

6. ZENBAIT OHAR

Ondoren aipatuko ditugun arauak ikastolaren eguneroko funtzionamendurako ipinitakoak dira. Arau horiek elkarbizitza eta ikastolako helburuen lorpenera bideratuta daude. Ondorioz, guztiok errespetatu eta errespetarazi behar ditugu.

EUSKARA

Ikastolan eta ikastolako jarduera guztietan euskaraz hitz egingo dugu, eta gure ingurukoek ere euskaraz hitz egin dezaten eskatuko dugu.

PUNTUALTASUNA ETA ASISTENTZIA

Errespetuzko jarrera bat denez, zaindu beharrekoa da. Ondorioz, gelara garaiz iritsi behar da saioa bere orduan hasteko

Ikasleak, ikastolako saio edo edozein irteeretara etorri ezin badu edo lehenago atera behar duenean, gurasoen oharra edota justifikazioa aldeztu aurretik ekarriko dituzte tutoreari.

Oharrak beti idatziz egingo dira, ikaslearen aste-egitaraua edo tutorearen e-posta erabiliz.

HAMAIKETAKOA

Gomendagarria da hamaiketako osasuntsua ekar dezaten: fruta, frutu lehorrak, otartekoa...

SAKELEKOA, JOKO ELEKTRONIKOAK ETA ANTZEKOAK

Ikasleek ezingo dituzte mugikorrek/sakelakoak, musika tresnak etab. ikastolan erabili (irakasle baten baimenarekin ez bada behintzat, eta salbuespen gisa).

PATINETEAK, BIZIKLETAK ETA BESTELAKOAK

Ikastola barnean hauen erabilera debekatua dagoenez, behin atea zeharkatuta ikasleak oinez joan beharko dira. Bizikletak eta patineteak sarreraren eskuinaldeko aparkalekuetan utziko dira lotuta.

ATEAREN IREKIERA ETA ITXIERA

Irekierak: 8:50 (ate nagusia), 12:30 eta 14:25 (ate txikia) eta 16:30 (ate nagusia)

Itxierak: 9:05 (ate nagusia), 12:40 eta 14:35 (ate txikia) eta 16:45 (ate nagusia)

7. OSASUN ARRETA

OSASUN OROKORRA

Aurretik osasun-fitxaren bitartez adierazi zenigutena aplikatuko dugu aurten ere ikasleei botika eman eta dagokien osasun arreta eskaintzeko garaian. Orduz geroztik **aldaketaren bat eman bada** (ikaslearen osasun egoera, har ditzakeen botikak...) lehenbailehen tutoreari adierazi, tutoreak emango dizuen informazio-orria bete eta, behar den kasuetan, medikuaren agiria ekarri beharko duzue. Tutoreak helaraziko dizuen fitxa horretan bi atal nagusi dituzue:

- Lehenengo atala krisi egoera bat sorraraz dezaketen gaixotasunen bat dutenek bete behar dute. Hala denean, ekar ezazue arren medikuaren txostena. Bertan, ikasleak krisiren bat izanez gero ikastolako kideok nola jokatu behar dugun adierazi behar da.
- Bigarrena orokorra da, denek betetzea eskatzen dizueguna. Bertan, gurasoek adierazi behar duzue ikastolari baimena ematen diozuen ala ez ikasleari botika emateko:
 - Analgesiko edota antiinflamatorio orokorrak seme-alabari emateko baimena ematen ote duzuen adierazi. **Bai** ala **ez** adieraz ezazue arren.

- Gaixotasun kronikoa duelako beste sendagairik ematea eskatzen duzuenean (bronkodilatadoreak...) botikarekin batera medikuaren txostena ere ekar ezazue, arren, botika emateko jarraibideekin.

Haurren batek bestelako gaitz kutsakorren bat balu tutoreari berehala abisatzea eskatzen dizuegu (Aftak, konjuntibitisak, zorriak, heste-zizareak, gastroenteritisa,...).

Ikasleak elikagaiekin loturiko arazorik duen kasuetan (alergia, intolerantziak...), eta arazo hau Ategorrietako jangelakoentzat berria bada (LH1ekoa delako, orain arte jangelakoa ez zelako edo arazoa berria delako), osasun fitxa betetzeaz gain, jangelako arduradunekin harremanetan jartzea eskatzen dizuegu.

ISTRIPUEN KUDEAKETA (BETI POLIKLINIKAN):

Ikastolak ikasleentzat kontratatutako aseguruia Mapfreren bitartez bideratzen da. Istripu bat Ikastolako eremuan gertatzen denean, bai eskola-orduetan, baita eskolaz kanpoko jardueretan ere, ikasleek POLIKLINIKARA joan behar dute (larrialdietara), aseguruarekin hitzartutako osasun-zentroa baita. Bertan, Ikastolatik prestatu zaien "istripu parte" erakutsi beharko dute. Istripu parterik ez balego (idazkaritza itxita dagoelako edo istripuaren ondorioak ikastola orduetatik kanpo sumatu direlako), Zurriola Ikastolako ikaslea dela adierazi eta parte hurrengo egunean jasoko dutela esanda, artatuak izango zarete. Hurrengo egunean abixua eman idazkaritzan gertatutakoarekin, parte bidali dezaten.

Garrantzitsua da Ikastolan gertatutako istripuen ondorioz EZ JOATEA OSAKIDETZARA. Mediku-arreta hori ez da osasun-zerbitzuan sartzen eta, ondorioz, Ikastolaren gain geratzen da eta Osakidetza ikastolari zerbitzua kobratuko dio.

8. IRTEERAK, JARDUERA OSAGARRIAK ETA OSPAKIZUNAK

IRTEERAK

Ikasturtean zehar hainbat irteera egin ohi dira urtero, goiz-pasa, egun-pasa edo egun batzuetakoak. Horietako batzuk helburu akademikoekin lotura zuzena dute, beste batzuek, ordea, elkarbizitzarekin edo bestelako zehar kompetentziekin. Aurtengo plangintzaren barruan, besteak beste, Eureka Zientzia Museora, Plaiaundira... joango gara. Data gerturatu ahala burutuko ditugun irteeren berri emango dizuegu.

Ikasturte bukaerako 3 egunetako irteerak ere egingo ditugu (maiatzaren 22, 23 eta 24). LH5ekoak Allo-ra joango gara.

JARDUERA OSAGARRIAK:

Urtero, hainbat ekintza gauzatu ohi ditugu ikasgai jakin batzuetako eduki eta kompetentziak lantzeko, bai eta zeharkako kompetentziak lantzeko ere. Ekintza horietako batzuk ikastolan bertan egiten dira, eta beste batzuk, aldiz, ikastolatik kanpo.

Maila honetan ohiko jarduera osagarriak hauek dira:

- Hatz-10 (mekanografia programa)
- Donostiako Zinemaldia
- Koldo Mitxelena literatur lehiaketa
- Zientzia museoa
- TINKO euskarazko zinema
- Kontzertu pedagogikoak (EOS)
- Giza eskubideen aldeko margolan lehiaketa
- Heziketa afektibo sexuala
- Teknologia berriek dituzten arriskuen inguruko formakuntza (ikasle eta gurasoentzako).

OSPAKIZUNAK:

Ikasturtean zehar, Euskal Herriko eta Donostiako kultura ondarearen ezaugarri diren hainbat ospakizun burutzen ditugu. Gure gizartearen kultur-adierazpen hauek ikasleak ezagutzea eta horiekiko jakin-min eta begirunea izatea ikastolaren xedeetako bat da. Hortaz gain, momentu aproposak izaten dira Ikastolako ikasle, irakasle eta familiak elkartzeko eta gure kultura eta izaera auzora zabaltzeko. Horien berri data gerturatu ahala emango dizuegu.

Ospakizun hauek hurrengo datetan egitea aurreikusten dugu:

- Euskararen eguna: abenduaren 1an
- San Tomas: abenduaren 20an
- Gabon eguna: abenduaren 24an
- Danborrada: urtarrilaren 19an
- Kaldereroak: otsailaren 2an
- Inauteriak : otsailaren 9an (mozorro librea)*
- Korrika: martxoaren 14tik 24ra bitarte, data zehazteke
- Ikastolaren Eguna: zehazteke

*Ohikoa den moduan, Kaldereroak eta Inauterien artean astebeteko epea soilik dagoenean, bigarrenengo honen konpartsa bertan behera gelditzen da. Ondorioz, 2024. urtean ez ditugu Euskal Inauteriak ospatuko.

9. EUSKARAZ BIZI PROIEKTUA

Zurriola Ikastolako sorrera-helburua euskara eta euskal kulturaren transmisioa eta sustapena dira. Areago, Zurriolako ikaslearen irteera-profileko lehen ezaugarria *euskaldun euskaltzalea* izatea da. Hortaz, horretan saiatzen gara bai gelan baita gelaz kanpo ere.

Proiektu honen helburu nagusia ikastolako partaide guztiengan, ikasle, langile eta gurasoengan euskararen erabilera sustatu eta eragitea da. Helburua partaide guztien artean euskara normaltasunez erabiltzea da. Horretarako plangintza zehatzak bultzatzen ditu proiektu honek.

Irakasle eta langile guztiok konpromiso argia hartzen dugu proiektu honen alde eragiteko, baita dagozkigun arloetan formazioa hobetzen jarraitzeko ere.

Gurasoen kasuan, ikasleen hizkuntza erabileran familiak duen garrantzia bereziki azpimarratu nahi dugu. Horren harira, Ikastolako Gurasoen Euskara Batzordea lanean ari da, eta aurten ere, indar berezia jarriko da geletako ordezkari eta gainerako gurasoen parte-hartzean. Txosten honen amaieran duzue batzordeak sorturiko dekalogoa.

Guraso euskaldunek beren artean euskara erabiliz modurik eraginkorrena dute seme-alabengan ahalik eta hizkuntza erabilera eta gaitasun onena ziurtatzeko. Zaindu hizkuntza ikastolako atarian, mesedez.

Guraso erdaldunek ere, euskararekiko interesa erakutsiz eta seme-alaben arteko euskarazko erabilerak oro har sustatuz (euskarazko komunikabideak adibidez), seme-alaben euskararen erabileran modu positibo batean eragin dezakete. Zer esanik ez euskara ikastera animatzen badira. Zentzu horretan, Euskararen erabileraren inguruko ardurarekin jarraiki, aurten ere **Gurasoentzat euskara ikastaroa** eskainiko da. Zuetariko bakoitzak euskaraz hitz egiteko egiten duen saiakera zuen seme-alabentzat duen garrantziaz jabetuta, euskara maila hobetu edo ezagutza gutxienekoa jaso nahi duen gurasoarentzat ikastaroak eskainiko ditugu, ahal dela, ikastolan bertan.

Ikasturtearen arabera, Euskaraz Bizi proiektuaz gain, garrantzia berezia hartuko duten ekimenak bizitzen ditugu Euskal Herrian, hala nola, **Euskaraldia** eta **Korrika**. Ikastolak dagokion bakoitzean ekimen horietan parte hartuko du modu ofizialean, eta gure ikasleekin ere landu eta ospatuko ditugu. Horretaz gain, guraso guztiei luzatu nahi dizuegu parte hartzeko gonbitea, baita zuen seme-alabekin bizitzekoa ere.

10. ELKARBIZITZA

Alor honek berebiziko garrantzia du gure egunerokoan. Ikasleen ikasketa-prozesua behar bezala eman dadin, inguru seguru batetan sentitzea ezinbestekoa da, non errespetuzko jokabideak soilik onartuko diren. Ildo honetan, azken urteetako ekimenei jarraipena emanaz, beste pauso bat eman dugu. Alde batetik, Haur Hezkuntzan EHIko Kuku programa abian dugu ikasleen emozioak landuta, hauen adierazpena eta kudeaketa hobetzeko asmoz. Bestetik, LH1en hasita eta DBH3. maila bitarte KiVa programa dugu martxan.

Zurriola, Kiva Ikastola

Zurriola KiVa Ikastola da 2021-2022 ikasturtea geroztik. Finlandiako unibertsitateak garatutako programa honek Ikastolako gazte era nerabeen artean eman daitekeen jazarpena prebenitu, detektatu eta beharrezkoa denean eskua-hartzea du helburu. Funtz teoriko sendoak izateaz gain, hainbat ikastoletan egiaztaturiko programaren emaitza positiboak ere aipagarriak dira.

11. GURASOEN PARTAIDETZA IKASTOLAN

Gurasoak Zurriola Ikastola IKE kooperatibako partaide nagusiak izanik, Ikastolaren norabide estrategikoaren ardatza dira, besteak beste, Batzarra, Artezkaritza Kontseilua eta Eskola Kontseiluaren bidez. Aldi berean, gurasoek partaidetza hori areagotzeko aukera dute Olarrizuren bidez. Olarrizu IGE Zurriola Ikastolako ikasleen guraso-elkartea da. Ikastolaren kooperatiba-izaera bultzatu nahian, bazkide guztion partaidetza sustatu nahi du, bi helbururekin: ikastola osatzen dugun kolektibo guztien arteko harremana sendotzea eta, auzolana bultzatuz, gure seme-alabentzat eredu izatea.

Martxan dauden eta sortu daitezkeen ekimenak aurrera eramateko eta koordinatzeko, batzordeak osatu dira. Batzorde horietan gurasoak dabilta jarduera hauek antolatu eta hobetu nahian. Batzordeak proposamenak egin eta lantzeko prest dauden guraso guztientzat daude irekita. Gaur egun, ondorengo guraso-batzordeak daude martxan: Euskara Batzordea, Jai Batzordea, Kirol Batzordea, Komunikazio Batzordea, Haurren Danborrada Batzordea, Helduen Danborrada Batzordea, Zurrimendi, Mugikortasun Batzordea, Jangela Batzordea eta Teknoiz. Batzorde hauetako batean parte hartu nahi izanez gero, ondorengo helbidean harremanetan jarri. Ikastola GUZTIOK, GUZTIONA, GUZTIONTZAT baita.

artezkaritza@zurriolaikastola.eus

Bestalde, zuen seme-alaben heziketa integralean Ikastola eta familien arteko elkarlana ezinbestekoa dela ulertzen dugun heinean, ildo berean joan ahal izateko guraso-eskola saioak eskaintzen ditugu urtero. Unean uneko gaiak eta datak jakin bezain laster, haien berri emango dizuegu.

12. GELAKO GURASO ORDEZKARIAK

Gurasoen partaidetzarekin jarraituz, gela bakoitzean guraso ordezkari bana eta ordezeko bat aukeratuko da. Ordezkar horiek bitartekari lanak egingo dituzte ikastola eta gurasoen artean ikasturteko harremanak ahalik eta egokienak izan daitezzen. Hori dela eta, ikastolarekin eta ikastolarentzat lan egiteko prest dauden guraso dinamikoak eta boluntarioak behar dira. Guraso hauek beste gurasoak dinamizatu, koordinatu, proposamenak jaso, bideratu eta tutore, kudeaketa talde, zuzendaritza

pedagogiko eta Artezkaritza Kontseiluko kide eta Batzordeen arteko harremana sustatu eta zainduko dute. Guraso boluntariorik ez balego, ikasturte hasierako guraso bileran zozketaz aukeratuko dira guraso ordezkariak eta hauen ordezkoak. Zozketatik salbuetsiko dira lehendik ordezkari izandakoak.

2020-2021 ikasturtean, guraso ordezkarien papera definitu eta indartu nahian, hauen funtzioak, lan-dinamika eta antolaketa moduak berraztertu eta berregokitu ziren. Adostutako informazioarekin txosten bat osatu zen, ordezkari berriekin partekatuko dena, lehen bilerara deituak izan aurretik.

13. ERANSKINAK

A) ORDUTEGIAK

LH 5A- UXOA

ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
EUSKARA	EUSKARA	MATEMATIKA ERREFORTZU	INGELESA	GAZTELANIA
INGURUNEA	LIBURUTEGIA	MUSIKA	GAZTELANIA	INGELESA
MATEMATIKA	INGURUNEA	GH	GH	MATEMATIKA
TAILERRAK	MATE TXOKO	EUSKARA	INGURUNEA	EUSKARA IRAKURKETA
TAILERRAK	MATE TXOKO	INGELESA	BALOREAK	TUTORETZA

LH5B- LEIRE

ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
EUSKARA	EUSKARA	MUSIKA	GH	INGURUNEA
INGURUNEA	INGELESA	LIBURUTEGIA	INGELESA	GAZTELANIA
MATEMATIKA	GAZTELANIA	MATE ERREF	MATEMATIKA	GH
TAILERRAK	MATE TXOKO	EUSKARA	INGURUNEA	EUSKARA IRAKURKETA
TAILERRAK	MATE TXOKO	INGELESA	BALOREAK	TUTORETZA

LH5C- PERU

ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
EUSKARA	EUSKARA	GAZTELANIA	MATEMATIKA ERREFORTZU	MUSIKA
INGURUNEA	INGELESA	INGURUNEA	INGELESA	MATEMATIKA
MATEMATIKA	GAZTELANIA	GH	GH	INGELESA
TAILERRAK	MATE TXOKO	EUSKARA	INGURUNEA	EUSKARA IRAKURKETA
TAILERRAK	MATE TXOKO	LIBURUTEGIA	BALOREAK	TUTORETZA

B) EUSKARAZ BIZIKO DEKALOGOIA

1. IZAN EREDU

Umeek ez dituzte aginduak maite, ereduak kopiatzen dituzte. Beraz, gurasook izan behar dugu eredu.

2. IKASTOLA EUSKARA ERABILTZEKO GUNEA

Ikastola gunee egokia da euskara erabiltzeko, baldintza egokiak ditu: ezagutza altua eta jarrera baikorra du jendeak. Askorentzat gunee egoki bakarrenetakoa da euskaraz aritzeko.

3. ERABILI EDO SAIATU

Nork bere gaitasunaren arabera erabil dezake euskara. Ulertzen duenak besteoi euskaraz egitea oztopatu gabe, zerbait dakienak euskaraz erantzun errazak emanek...

4. LEHEN HITZA EUSKARAZ

Egunon! Agur! Zer moduz! batekin hasteak euskaldun bezala identifikatzen zaitu eta gure lehen irudia da garrantzitsuena.

5. GUZION ESKU

Hizkuntzaren erabilera ekintza kolektiboa da beti. Adostasunera irits gaitezke gure solaskideekin.

6. JOERA ALDATU

Hauts ditzagun egoera hauek: 4 euskaldun+ erdaldun bat= gaztelaniaz. Edo are larriagoa dena 4 euskaldun= gaztelaniaz.

7. GOGOZ EGIN BIDEARI

Motibazioak, ezagutzak eta erabilerak elkar elikatzen dute. Euskara erabiltzen den lekuan ezagutza handitzen da eta ez dakitenek ikasteko motibazioa handitzen da. Baikortasuna, berriz, motorra da.

8. URRATSEZ URRATS

Bakoitzak bere egoera eta beharren arabera ikas dezake euskara. Ez dakiena ikasten has daiteke, gutxi dakienak erabilera eta ezagutza hobetu ditzake ikastolan eta dakienak besteoi lagundu diezaieke erabileran.

C) JANGELAKO DEKALOGOIA

GURE JANGELAKO DEKALOGOIA

1. Jangela ez da jatetxe bat. Denon ardura izango da jantokiko zerbitzua eta garbitasuna. Bertako hezitzaileek lan horretan lagunduko gaituzte.
2. Jangelan errespetuzko jarrerak izan beharko ditugu:
 - Zerbitzatzen gaituenari eskerrak eman.
 - Gauzak "mesedez" eskatu.
3. Janaria eta esku zikinak ez datoz bat, ezta? Jantokira sartu aurretik eskuak ongi garbitu.
4. Bazkaldu aurretik denon artean mahaia jarriko dugu.
5. Janaria ez dugu jolasteko erabiliko. Beraz, ez bota ogi zatirik.
6. Matematikak bezala, jaten ere ikasten da! Horretarako elikagai guztiak probatu behar ditugu.
7. Ssssss... Denok gustukoa dugu giro lasaiean bazkaltzea. Tonu baxuan hitz egin eta oihurik ez, mesedez.
8. Jangelan presa ez da lagun ona. Beraz, mahaikideek amaitu arte ez gara mahaitik altxako.
9. Bazkaltzen bukatzean hezitzaileen laguntzarekin mahaia jasoko dugu eta mahai ingurua txukun utziko dugu.
10. Gure burua zaintzeaz gain natura ere zaindu beharko dugu ba! Plastikozko ontziak birziklatzera botako ditugu.

Aurretik ipinitakoak betetzeko gai al zara? Hala bada, ongi etorri ikasle!! Prest zaude Ategorrietako jangela erabiltzeko.

D) "SMARTPHONA ZERGATIK ETA ZERTARAKO?" DEKALOGOIA TEKNOIZEN ESKUTIK

SMARTPHONA ZERGATIK ETA ZERTARAKO?

1. ZENBAT ETA BERANDUAGO EMAN HOBE

HAURREN BURMUINA EZ DAGO BIOLOGIKOKI PRESTATUA.

2. SMARTPHONA EZ DA JOSTAILU BAT

EZ EMAN OPARI GISA.

3. SMARTPHONAK MENPEKOTASUNA SORTZEN DU

UTZ DIEZAIEGUN GURE SEME-ALABEI BIZITZA GOZATZEN ETA ASKE IZATEN.

4. AURREZ AURREKO GIZA-HARREMANAK GUTXITZEN DITU

PANTAILAK EZ DAITEZELA HORIEN ETA BESTELAKO BIZIPENEN ORDEZKO IZAN.

5. INTERNETERAKO SARBIDEAK HAINBAT ARRISKU DITU

ZIBER-JAZARPENA, SEXU-JAZARPEN BIRTUALA, BIOLENTZIA ETA SEXU EDUKI DESEGOKIAK...

6. ONDO INFORMATUTA EGOTEA DA, ERABILERA EGOKIA SUSTATZEKO GAKOA

OSO TRESNA INDARTSUA DA. HAURREK EMANGO DIOTEN ERABILERA GURE ESKUETATIK KANPO GERATZEKO ARRISKUA HANDIA DA. APLIKAZIO ETA JOLASAK ERABILTZEKO GUTXIENENKO ADINA EZAGUTZEA GURE ARDURA DA.

7. GOGORATU: HELDUAK EREDU GARA

ETXEAN MUGIKORRIK GABEKO UNE ETA EREMUAK BERMATU. MUGIKORRAREN ERABILERAZ HAUSNARTU. EZ EDUKI UNEORO MUGIKORRA ESKUETAN.

8. SMARTPHONA EMATEKO ERABAKIA SOZIALA DA

GURASOEN ARTEKO HITZARMENEK "DENEK DUTE" ARGUDIOA AHULTZEN DUTE. ERABAKIA GUREA DA.